GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT

Aste honetako nabarmendua | BISITA GIDATUA ETA BAZKARIA | 1

# Amaiurko Gazteluaren historia ezagutzeko bisita gidatua eta bazkaria Iruñeako Alde Zaharrean

Euskal Herriko hiriburuan ikusgai dago lehen aldiz, Aranzadi Zientzia Elkarteak antolatutako Amaiurko Gazteluaren inguruko erakusketa hau. Kondestable Jauregian kokatuta, Iruñeako Alde Zaharraren erdi-erdian, erakusketa honi esker Amaiurko gazteluaren historiaren nondik norakoak ezagutu ahal izango ditugu, bertan arituta-ko arkeologoen eskutik. Amaiurko Gaztelua Nafarroako kultur ondare erreferentea da, 1522an gertatutako mugarri historikoaz geroztik mendeetan zehar nafar gizartean interes handia piztu duen gunea dena.

Erakusketa bisitariak bere iritzi propioan sakontzeko diseinatu da, pentsamendu kritikoa uztartuz eta Amaiur ulertzeko hainbat ikuspegi azalduz. Erakusketa hiru eremutan sailkatzen da: oroimenarena Zaguan aretoan, artearena Patio gunean eta zientziarena areto Gotikoan. Urtarrilaren 28ra arte egongo da zabalik, astelehenetik larunbatera.

Bi pertsonarentzako soilik egindako bisita gidatua eta bazkari pasa bat zozketatuko dugu, Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoekin batera egingo dena. Bi lagunentzako bazkaria Oreja jatetxean izango da.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:

## ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Zorroagagaina, 11 · 20014 Donostia
www.aranzadi.eus / idazkaritza@aranzadi.eus
Tel.: 943 46 61 42

#ondarea
#oroimenhistorikoa
#lurraldetasuna
#arkeologia

## Hilabeteko honetako sariak

1




Aranzadi Zientzia Elkartearekin bisita gidatua eta bazkaria Iruñeako erakusketan
**2 pertsonarentzako**

2




Ipar Euskal Herriko Laborantzaren egoera eta garapena
**4 liburu**

3




Euskaltzaleen aktibazioa XXI. Mendean jardunaldiak
**2 sarrera**

4




ARGIA 2017 Egutegia
**3 egutegi**

**Parte hartzeko:** ✆ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.